



OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

Oiartzungo Eskola Kirola eta Udal Kirol Kontseilu eremuen kudeaketa zerbitzua esleitzeko baldintzen plegu teknikoak

1. XEDEA

Plegu hauen xedea, ondorengo zerbitzuak esleitzeko lehiaketa deialdia zuzendu behar duten baldintzak teknikoak arautzea da:

1. Oiartzungo **Eskola Kirola** eremuaren kudeaketa zerbitzua.
2. Oiartzungo **Udal Kirol Kontseilu** eremuaren kudeaketa zerbitzua.

2. IRAUPENA

Esleipena bi urterako egingo da, halere, kontratua lau urte arte luza daiteke urtero berrituz.

Zerbitzua, ikastetxeetako ikasturtearekin batera, irailaren 1etik, ekainaren 15a arte eskeiniko da, beraz, kontratua, 2011ko irailaren 1ean hasi, eta 2013ko ekainaren 15ean amaituko da, eskola oporrak kanpo.

3. EGINKIZUNAK

Alde batetik, **Oiartzungo eskola kirola eremuan**, E1 egitasmoak, eskola pilotak eta hauekin zerikusirik dituzten bestelako eginkizunak bideratzeko eta bestetik, **Oiartzungo Udal Kirol Kontseiluaren eremuan**, kirol kontseiluan, datu baseen kudeaketan, kirol aholkularitzaren eremuan eta hauekin zerikusirik dituzten bestelako eginkizunak bideratzeko, enpresak, **teknikari bat jarri beharko du** ondorengo funtzioa beteaz:

Eskola Kirola eremuaren barruan egitasmoen koordinantza

Funtzioak

▪ Eskola Kirolan

1. Oiartzunen Eskola Kirola egitasmoan esku hartzen duten Haurtzaro ikastola eta Elizalde Herri Eskolaren jarraipena egitea.
2. Ikastetxeetako koordinatzaileei eta entrenatzaileei lagundu eta orientatu, horretarako behar diren saio teknikoak emanaz.



OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

3. Entrenatzaileen jarraipena egitea: jarrera, saioak egiteko modu, euskararen erabilera, etab.
4. Saioen kalitatea ziurtatzearen, entrenatzaileei oinarrizko prestakuntza eman horretarako prestaturiko ikastaro eta unitate didaktikoak bideratzea.
5. Entrenamendu-saioetan zuzenean esku hartuz entrenatzaileak aholkatzea.
6. Eskola kirolean euskararen erabilera bultzatzea.
7. Txostenak, memoriak, etab. egiteko datuak jasotzea.
8. Oiartzungo Udalak izan ditzazkeen eskola-kirolari buruzko datu-baseak hornitu eta kudeatzea
9. Oiartzungo Udaleko Gazteria eta Kirola Sailak dituen webguneetan astero eskola kiroleko jardueren berri ematea
10. Eskola-kiroleko urteko egutegia egitea, eta ondo burutzen dela ziurtatzea.
11. Eskola-kirola inguruko jarduera bereziak antolatzea (natura jarduerak, kirol egokitua, etab.).
12. Asteburuetako partidak egingo diren kirol-instalaketan egotea eta lehiaketak ondo funtzionatzeko eta garatzeaz arduratzea.
13. Oarsoaldea mailan, eskola kirolaren urteko egitasmo osaketan parte hartu, Oarsoaldeko 4 udaleko udal kirol teknikariekin eta Oarsoaldean xede horretarako izendatutako teknikariarekin batera.
14. Kirol egitasmoa eskualdeko instalaketan asteburuetan ondo gauzatzeko. Ardura hartzea.
15. Instalazioetan kirol adituak eskoletako monitorei laguntzeko egongo direla ziurtatu eta usaian sortzen diren hainbat arazoei –instalaketak itxiak, arbitro-falta, kirolariak ez etortzeak, material falta, hainbat liskar, etab. – konponbidea aurkitzeko.
16. Elkartetako eragileekin –kirol ezberdinetakoekin– elkartu eta epaile-lana antolatzea.
17. Kirol teknikari eta ikastetxeetako koordinatzaileekin batera, Oarsoaldeko eskola-kirolaren asteroko bileratan esku-hartzea. Horietan bilera aurreko asteburuan jazotako gertaeren berri ematea eta baita eman litezkeen aldaketa oroena ere.

▪ Eskola pilotan

1. Denboraldi hasieran herriko pilota elkarteekin biltzea eta egitasmoa martxan jarri dadin behar diren atalak koordinatu eta baliabideak lortzea, besteak beste, zabaltze kanpaina, izen ematea, entrenatzaileak bilatu, taldeen osaketa, instalakuntza erreserbatu, ordutegiak finkatu, errendimendu ibilbideko kirolarientzat fitxak egitea, behar den materiala lortzea...



OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

2. Herriko pilota eragileekin (batez ere pilota elkarteekin eta herri kanpoko eragileekin (Federazioarekin, besteak beste) harremanetan egotea, egistamoak behar dituen gauzetarako (partiduak, egutegiak...)
3. Modalitate ezberdinen entrenatzaileekin asteroko bilera teknikoak antolatu eta dinamizatzea
4. Entrenatzaileen jarraipena egitea: jarrera, saioak egiteko modu, euskararen erabilera, etab.
5. Denboraldiko txapelketan parte-hartzeko koordinazioa eramatea: izen ematea, bikoteak...
6. Xanistebanetako txapelketa herrikoia antolaketa koordinatzea: deialdia, izen emateak, bikoteak, sariak...
7. Behar diren ebaluazio sistema ezberdinekin, denboraldiko egitasmoetan parte hartzen duten eragile ezberdinen balorazioa jasotzea.
8. Egitasmoan parte hartzen duten pilotarien, herriko pilota elkarteetarako transizioa koordinatzea.
9. Antolatu daitezkeen jarduera bereziak (aurkezpen, azken festa...) koordinatzea.
10. Denboraldian zehar suerta daitezken ez ustekoei, aukerei eta bestelakoei aurre egitea.

▪ Orokorrean

1. Ikastetxeetako koordinatzaileei laguntza eskaintzea eskoletako taldeen lan-saioak, izenemateak, etab. egiteko orduan.
2. Eskola kirolan ikastetxeek gehiago parte har dezaten, jolas-kirol izaerako jarduera diferenteak egitea, esaterako, ikasturte hasieran kirol-jaiak, etab. eginez.
3. Eskola garapeneko ildo berrien jarraipena egitea (Gazteentzako Kirol Plana, Kirol Eskolak, Teknikifikazioak,...).
4. Oiartzungo Udaleko Gazteria eta Kirola Sailak eska ditzakeen beste edozein eginkizun, beti ere beroriek koordinatzaileen eginkizunekoak baldin badira.

Oiartzungo Udal Kirol Kontseiluaren eremuan

▪ Udal Kirol Kontseiluan

1. Udal Kirol Kontseiluko deialdiak, jakinarazpenak, aktak eta gai zerrendak prestatzea, azken hau, kirol teknikariarekin batera eta zinegotziaren oniritziarekin.
2. Udal Kirol Kontseilurako behar den materiala prestatzea: gelaren erreserba, behar den materiala (aulkiak, mahaiak, proiektorea...), dokumentazioa, diapositibak...
3. Udal Kirol Kontseiluko eragileen parte-hartzea dinamizatzea



OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

▪ **Datu baseen kudeaketa**

1. Udalak dituen eta izan ditzazkeen datu baseak hornitzea.
2. Udalak dituen eta izan ditzazkeen datu baseak beste kirol eragileek hornitzeko baliabideak eskeintzea.
3. Datu base hauen jarraipena egitea (datuak egunean izan, kirol eragileen jarraipena egin datu basea hornitzeko...).
4. Datu base hauetan definituta dauden edota definitu daitezken explotazio txostenak sortzea.
5. Datu base hauetaz baliatuz, denboraldiz-denboraldi Oiartzungo kirolaren inguruko datu estatistikoen explotazioa egitea (datuak, genero, modalitate, talde, adin, auzo...araberakoak) eta baita historiko ezberdinak ere (urte ezberdinen artekoak, bilakaerak...)

▪ **Kirol aholkularitza eremuan**

1. Herriko kirol eragile guztiekin harremanak lantzea
2. Herriko kirol eragileei buruzko informazioa egunean izatea (ordezkariak, telefonoak, helbideak, kirol modalitateak, taldeak...)
3. Eskualdeko kirol eskaintza eta aukerak aztertu eta ezagutzea, behar den uneetan, herriko kirolariei eskeiniz.
4. Herriko kirolariek izan ditzazketen zalantzak teknikoak argitu edo bideratzea.
5. Herriko talde eta elkarteek behar izan dezaketzen laguntza teknikoa eskeintzea

▪ **Orokorrean**

1. Udala eta kirol eragileen bitartekaritza lana erraztea.
2. Oiartzungo Udalaren Kirol Politikaren irizpideak defendatu eta gauzatzen laguntzea.
3. Oiartzungo Udaleko Gazteria eta Kirola Sailak eska ditzakeen beste edozein eginkizun, beti ere aurreko eginkizunekin erlazioa baldin badute.



OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

4. ORDUTEGIA

Enpresask kontrataturiko pertsonak ondorengo ordutegia egingo du:

Eskola Kirola eremuaren barruan

- Astelehenetik ostiralera arratsaldez.
- Larunbata goizetan, lehiaketan arabera.

Honetaz gain, Oiartzungo Udaleko Kirol teknikariarekin koordinazio bilerak adostuko dira.

Orotara, koordinatzaileak, eskoletako oportretan izan ezik, **astean 20 ordu egingo du lan irailaren 1etik ekainaren 15a bitartean.**

Oiartzungo Udal Kirol Kontseiluaren eremuan

Goiz eta arratsaldez, Udaleko Kirol Teknikariarekin adostutako ordutegian.

Orotara, Oiartzungo Udal Kirol Kontseiluko zereginetarako, eskoletako oportretan izan ezik, **astean 20 ordu egingo du lan irailaren 1etik ekainaren 15a bitartean.**

5. LANEKO LEKUA

Zerbitzua Oiartzungo ikastetxeei emango zaie eta kirol instalakuntzak, berriz, lehiaketan arabera, Oarsoaldea eskualdekoak erabiliko dira.

Horrez gain, eskualdeko beste teknikariarekin asteko koordinazio-bilerak Errenteriako Galtzarabordako kiroldegian egingo dira, baita eskualdeko antolaketari buruzkoak ere.

Oiartzungo udalak, leku bat eskainiko dio langileari, behar duen ekipamendu guztiarekin bere lana bideratu ahal izateko.

6. LANGILERIA

Enpresak kontrataturiko **pertsona bakarrak** eramango ditu bi egitasmoak aurrera.

Enpresak Gorputz-hezkuntza eta Kirol Zientzietan lizentziadun titulua duen pertsona bat jarriko du.

Enpresa behartuta dago Lan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta arriskuen prebentzioaren arloan indarren dauden legezko xedapenak betetzera. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Lanean diardun langilearen **nominen** kopia sinatua, eta **TC-1 eta TC-2**aren kopia ordainketaren datuekin entregatu beharko du Gazteria eta Kirola zerbitzuan hilabetero. Langilegoan aldaketarik egon ezker, langile berriaren kurrikuluma eta tituluen fotokopia konpulsatuak aurkeztu beharko dira eta Gazteria eta Kirola Zerbitzuaren oneritzia jaso beharko du.



OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

Kontratuak irauten duen bitartean, kontratuaren hasierako plantillan aldaketaren bat baldin badago, erretiroa dela, heriotza dela, borondatezko baja dela enpresan, kaleratzea dela, elbarritasun iraunkorra dela... edo zerbitzuaren beharregatik aldaketaren bat ematen den guztietan, esleipendunak Udalaren alde aurretiko baimena beharko du.

7. EUSKARA

Esleipendunak zerbitzuak garatzeko izendatutako langileak ezinbestekoa izango du EGA titulua edo baliokidea izatea. Zerbitzuak euskaraz eskainiko dira. Zerbitzuaren jasolearekiko ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

Esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

8. BALDINTZA EKONOMIKOAK

Enpresak zerbitzu honengatik **32.500 €**, BEZa barne, kobratuko ditu lehenengo ikasturtean, eta dirutza hau, proportzionalki, hil amaieran aurkezturiko fakturen bidez ordainduko da.

Diru-kopuru horri Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontsumoko Prezioen Indizearen, KPIaren, %85a gehituko zaio ondorengo ikasturteetan.

9. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHAR ZEHATZAK

Esleipendunak Erantzukizun Zibileko poliza bat egingo du, zerbitzua ematerakoan besteek egin ditzaketan erreklamazioen inguruan esleipendunari dagokion erantzukizuna bermatuko lukeena.

10. OIARTZUNGO UDALAREN ESKUMENAK

Oiartzungo Udalak, Gazteria eta Kirola Sailaren bidez, enpresari eskaturiko eginkizunak koordinatu eta ikuskatuko ditu.

11. ZERBITZUA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Lehiaketa esleitzeko ondorengo irizpideak erabiliko dira oinarritzat, hots, gehienez ere **100 puntu** lortu litekeen puntuazioa, jarraian ezagutzera ematen diren bezala banatuko dira:

1. Eskola Kirola egitasmoaren Proiektua: 20 puntu. Herriko Eskola Kirolaren inguruko proiektuaren kalitatea eta bideragarritasun teknikoa baloratuko dira.



OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

2. Oiartzungo Udal Kirol Kontseiluaren Proiektua: 20 puntu. Oiartzungo Udal Kirol Kontseiluaren inguruko proiektuaren kalitatea eta bideragarritasun teknikoa baloratuko dira.

3. Zerbitzua emateko proposaturiko hobekuntzak: 9 puntu

Zerbitzuak hobetzeko interesagarritzat jotzen diren hobekuntza proposamenak

4. Eskaintza ekonomikoa: 51 puntu

Zerbitzu hauek kudeatzeko gehienezko prezioa urtean **32.500 €**-koa izango da, BEZa barne. **Proposamen ekonomikoari gehienez 51 puntu** emango zaizkio, zerotik (0) hasita 10 puntu gehiago emanez **500 euro murrizkegatik.**